

# PR-A 78 MONTORIA – SAN LEON – ATXABAL

Ezaugarriak: 11,54 km / Desnibela 360 m / 3 h 25'

**Deskripzioa:** Ibilbideak Toloño mendilerroaren hegala freskoetan sartuko gaitu, hasierako zatian mendizaleentzat ere eza-gunak ez diren tokietatik. Meatzeko amildegitik igo behar da eta bertan antzinako ikatz-meatzeen ustiatzearen hondakinak ikus daitezke; garrantzi handia ematen zaie Euskadin ustiatze-gi horiek urriak direlako. Herrera mendatetik gertu San Leon mendira igotzeko aukera dago, azalduko den seinalezatutako saihebidetara jarraituz, baita izen bereko koba ezagutzeko aukera ere. Ibilbidea Rosa, Ataun eta Osluna bezalako hainbat muinoren ondotik igarotzen da, Errioxaren eta Arabako mendien eta lautadaren artean salerosketan aritzeko antzinako pasabide garrantzitsuetatik. Halaber, Zerreluntza eta aldapsua baina erakargarria den Atxabal mendietara igotzen aukera dago. Pagadiaren itzala izango dugu ibilbidearen zati handi batean.

MONTORIA. XVIII. mendean asko aldatu zuten San Migel elizatik herria zeharkatuko dugu kale Errealetik iturri zaharra eta aska handi bat igaroz. Herria atzean utziko dugu albo banatan hurritzak dituen pista atsegin bat jarraituz; pista hori haran txikiaren barrenetik igarotzen da hegoalderako norabidean. Erreka bat zeharkatu eta gutxira bidegurutze bat azalduko da. **1** 580m/alt 820m Atxabal mendirantz igotzen den eskuineko pista utzi egin behar da, itzulerarako erabiliko duguna, eta ezkerrekoa jarraituko dugu, harriztatu dagoena, Meatzeko erreka-errekiko paralelo igotzen dena. Astigarrek, erkametzek, pagoek eta batez ere hurritzak estaltzen dute amildegia mardula. Eskuinetara bide bat utzi ondoren erreka zeharkatu eta pista amildegia estuaren hegala estaltzen dituen eta ale oso zahar batzuk nabarmentzen diren pagadi eder batean sartuko da. Ibilbidearen edertasuna erreka gardenaren zurrumurruekin goratzen da. Bi ubideren elkargunera iristean erreka zeharkatuko dugu berriz ere eta pinudi batean sartuko gara. Gune horretatik aurrera antzinako jarduera den ikatz-meatzearen zantzuak antzeman daitezke; horregatik da ezaguna Montoria.

Zoru belartsu bihurtzen da eta aurki ezkerretara bide bat banatzen da **2** 1.500m/2,08m/alt 910m- eta berriz ere pagadiaren azpian sartuko den gure ibilbidean aurrera jarraituz, denbora guztian erreka ibilbidean gora eginez, ezkutuko bazterrak aurkituz. Puntu jakin batean iturburuak sortzearen ondorioz urez erraz betetzen den gune bat igaroko dugu, eta brastakoan igotzen hasiko gara **3** 810m/2,89m/alt 985m- hainbat erreka elkargunearen artean. Orain, basoan gune lauago batera iritsi arte zidor bat zeharka joango da iturburuak saihestuz; bertan Alecia iturburu aurkituko dugu, haritz handi baten azpian, urez betetzen dena erreka erori aurretik.

Orbelak estalitako bideak, bere ibilbidea jarraituko du ezpelak izaten hasiko den pagadi handitik. Harrizko mugari zahar baten ondora helduz zuzen jarraitu behar da eta metro gutxira baso-pista batekin lotzen da **4** 400m/3,29m/alt 1.025m-; bertatik igotzen jarraituko dugu gorosti-kopuru handia duen basoaren azpitik. Bidea lau izaten hasten den unean utzi eta ia antzeman ezin daitekeen beste bat hartu behar da ezkerretara **5** 530m/3,82m/alt 1.065m, muino zabal baterantz, La Traviesa izeneko, igotzen jarraitzen duena.

Muinora heldu ondoren **6** 200m/4,02m/alt 1.090m- bidea handiagoa da eta amildegia eder batetik jaisten hasten da espeldun pagadi baten itzalean. Jaitsieran nahiko adi egon behar da, izan ere, gune zehatz batean bide atseginak utzi behar dugu **7** 440m/4,46m/alt 1.055m-, Herrera mendaterrantz doan errepidera jaisten dena, eta eskuinetara HM norabidean pagadiaren azpiko ibar berri batetik igotzen den beste bide batetik jarraitu behar dugu.

Berriz ere arreta jarri behar da, izan ere, gorenean dagoen lekura iritsi baino lehen bide hori utzi eta ezkerretara doan bidezidor batetik jarraitu behar da (S) **8** 350m/4,81m/alt 1.105m-; espelen artean igaroko gara espelen artean ezkametz gazteak hazten diren goi ireki batera heldu arte. Ibilbidea orain Toloño mendilerroaren bista ederra eskainiz jaisten da; San Leon mendien tontor malkartsua ikusten da bere antenarekin eta ezkerretara Arrieta harkaitzaren eta Eskameloren malkar harritsuak. Bidea pagadiaren azpitik ibar berri batean sartzen da berriz ere; ibar hori zeharkatu behar da zuzen joateko malda handian gora, erkametzekin batera espelak berriz ere eta arte batzuk dituen gain berri batera iritsi arte.

Jaitsiera zoru oneko pista batean amaitzen da. **9** 580m/5,39km/alt 1.100m- Pista horrek Herrera mendateko errepidea Rivas mendatearekin lotzen du. Gure ibilbideak ezkerretara jarraituko du 50 metroan zehar gutxi gorabehera eta eskuinetara azaltzen den eta larre batzuetara doan bide belartsu batetik joango da. Ondoren alantze batekin paralelo joango da, koniferoen eta urkien saila duen Herrerako Roturosen mugan. Gutxira adar hori utzi behar da **10** 250m/5,64km/alt 1.100m- eta ezkerre (MHM) jo behar da larretik, biderik gabe, hurbileko basorantz.

Basoan sartzean gutxi gorabehera norabide bera jarraituz igo behar da basoko pista batekin elkartu arte. **11** 130m/5,77km/alt 1.110m. Puntu horretan jarraian azaltzen den saihebidetik joateko aukeratu daiteke, San Leon mendira igo eta jaistean izen bereko kobatik pasatzen dena.

**SAIHESBIDEA:** Ibilbide erraza da San Leon mendien tontorrean iritsi arte, jaitsieran zailtasun txiki bat egon daiteke. **11** puntuan ezkerretara dagoen pista hartu behar da ezpelak dituen pagadian zelaian ibiliz Herrera mendaterrantz, eskuinetara ibilbide nagusiaren norabidea utziz.

**11A** 780m/alt 1.110m. Errepidera helduz, Herrera mendatearen gainean, eskuinetara gora doan bidezidor batetik batetik jarraitu behar da. Sigi-saga pare bat egin ondoren tontorreko antena eraldatzeko hesituriko eraikerara iritsiko gara. **11B** 450m/1,23km/alt 1.170m. Hemetik egurrezko baranda duen harmailadi estu batetik jarraitu behar da; harmailadi horrek, izugarriko errepikagailua duen San Leon mendien tontor harriztara iritsi baino lehenagoko azken irtenuneak sigi-saga gaintzen ditu. **11C** 450m/1,40km/alt 1.228m. Gailurretik bista panoramiko aparta ikus daiteke gure aurrean: Toloño mendilerroaren ekialdeko bazterra Arrietaren tontorrekin, Eskamelo, Castillo de Vallehermosa, Cervera eta Recilla. Ebro ibaiaren meandroak eta Errioxako lurraldeak, Demandako mendilerroa eta Toloño mendia, gertuen dagoena azpimarratzen.

Tontorren mendebaldeko zatian malkar bertikalen bizkar batekin jarraitu beharreko norabidea adierazten du, eraldaketa etxola txiki baten ondok pasatzen den zidorretik jarraituz. Bidezidor estua San Leonen kareharrizko dortsalean zehar doa igotzen eta jaisten San Leoneko desagertutako gaztelura zihon galtzada hondatuarekin elkartu arte; gaztelua eraisteko eskatu zen karlistadan eta ez da gazteluaren inolako arrastorik geratzen. Bidezidorra zeharka joango da pagadiko espelen sastraken artean eskuinetara biratzen duen gune batera iritsi arte eta pagaditik zakarki samar jaitsiko da **11D** 330m/1,73km/alt 1.185m-; horma harritsu bat inguratuz joango da eta San Leon koba interesgarriaren ahoan **11E** 50m/1,78km/alt 1.170m- amaituko du.

Bisitaren ondoren ibilbideak ekarri duen norabide bera jarraituko du eta metro gutxira, aharrusia balitz bezala, lurra erdigunerantz sartzen den beste koba baten ahoa azaltzen da. Zidorrek eskuineko aldetik jarraituko du norabide berean. Zidorra lausotzen den tarte baten ondoren, galtzadaren gune txiki batek antzinako bidea hartu dela adierazten du. Ondoren IIE norabidean ziurtasun osoz joan behar da ezpelak dituen pagaditik igotzen den zuzeneko jaitsieran, berriz ere **11** 410m/2,19km/alt 1.105m- puntuko pistan amaitu arte.



Baso elurtua

Saihebidetara ez egitea aukeratu gero, ibilbideak pista eskuinetara jarraitzen du. Pagaditik ibilaldi luze eta atsegina egin ondoren Roturos de Herrera baino pixka bat lehenago utzitako pistarekin bat egingo dugu **12** 870m/6,64km/alt 1.120m. Metro gutxi aurrerago, zuhaitz bateko gezi batek Zerreluntza goialdeko politera igotzen den zidorra markatzen du.

Pista leunki jaisten da muino zabal batean bidegurutze batera iritsi arte **13** 220m/6,86km/alt 1.110m, bertan basoa zabaltzen da. Hemen koniferoen basotze bat dago eta eskuinetara sakonune handi bat. La Rosan mendatean gaude. Ezkerreko bide zaharra La Rosako monasterioaren hondarretarantz eta Errioxako Abalos herriakara jaisten da. Ibilbideak aurrera jarraitzen du berriz ere pagadian sartuz eta Erdiko edo Cocinas mendien hegala zeharkatuz. Mugari baten ondok pasatu ondoren eskuinetara jaisten den bide bat utzi eta larrean zabal izurtzen den bidetik jarraitu behar da.


Tarte luze baten ondoren Ataun mendatera iritsiko gara **14** 1.140m/8km/alt 1.085m, ehiza postu bat kokatzen den markaturiko muino batean dagoena. Ezkerretara Peciñara jaisten den bide zaharra hasten da eta aurrean zain gorriekin markaturiko zidor bat Atxabal mendira igotzen da, tamaina handiko dolina interesgarri batetik igaroz; puntu horretatik 100 metrora dago eta ikusteak merezi du. Gure ibilbideak eskuinetara jarraitzen du zeharka doan bidea jarraituz Atxabal mendien hegala jaisten duen bitartean. Pagadiak hostoak galtzen dituen gailur aldapsua eta malkartsua ikus daitezke.

Beste tarte luze baten amaieran ezkerretara markaturiko muino bat azaltzen da **15** 1.040m/9,04/alt 995m, bertara iritsi arte bide bat igoz. Osluna mendate da, mendilerro honetako antzinako beste pasabide bat. Bide hori Rivas de Teresorantz jaisten da San Bartolome baselizatik igaroz. Muinotik Atxabal mendira ere igo daiteke, nahiz eta alde honetatik zailagoa izan; gune batzuetan igoeran laguntzeko balio duen unama dago. Gure ibilbidea zuzen jaisten da, muinora igo gabe. Metro gutxira ezkerretara igotzen den bide bat utzi behar da.

Pista lau izaten hasten denean beste bat eskuinetik elkartzen da **16** 490m/9,53/alt 960m eta hori da jarraitu behar duguna, bira handia eginez eta Rivas mendaterrantz doana eta ekarri duguna utziz. Metro gutxira bide hori utzi behar da ezkerretara jaisten denetik jarraitzeko. **17** 140m/9,67/alt 960m. Mugari zahar baten ondok pasatu behar da eta koniferoen basotze baten artean jarraitu behar da aurrera, urkiak alde baten eta pagadia bestean direla. Eskuinetara mendateko erreka xumea pasatzen da; tamaina eskasa izan arren amildegia sakona moldatu du.

Presaren ondoren, bide bat eskuinetik elkartzen da **18** 470m/10,14/alt 900m, eta jaitsiera bide horretatik jarraitu behar da, oraingoan harriztatutako eta zoru oneko bidetik. Larre batzuk agertzen dira, lursailak eta hainbat hurritz bidearen bazterrak estaltzen dituzte meatzeko amildegitik pasatzen den bidearekin elkartu aurretik **19** 830m/10,97km/alt 825m, ibilbidearen hasieraren 1. puntua. Hortik, jadanik gertu dagoen Montoria herrira heldzeko bidetik itzultzea baino ez da falta, elizaren ondoan azaltzen den plaza txikiaraino. **20** 570m/11,54km/alt 805m.






Montoriatik gertu dagoen inguru elurtua



Montoriako San Migel eliza




Montoriatik hurbil dauden makalak



Meatzeko amildegitik doan bidea




Meatzeko erreka eta pagadia



Atxabalgotik dolina handia




Lilipak



Herrera mendateko inguru elurtua



Toloño mendilerroa San Leonetik



Toloño mendia Atxabaltetik



San Leon kobaren sarrera



San Leonerako eskailerak

